

2021 / 2022 ikasturtea

# ERIZAINAREN ESKU-HARTZEAK HAURRAREN ELIKADURAN, HELDUAROKO OSTEOPOROSIA PREBENITZEKO

MAIALEN ARTOLA AGUIRRESAROBE



## **LABURPENA**

**SARRERA.** Osteoporosia hezur-masaren murrizketa zein hezur-ehunaren mikro-arkitekturaren narriadura ezaugarri duen eta haren hauskortasuna areagotzen duen gaixotasun sistemikoa da. Osteoporosia izateko arriskua, %60an faktore genetikoei dagokie eta %40an faktore hormonal, fisiologiko eta bizimodu erari. Gaixotasun hau tratatzeko estrategiarik onena ordea prebentzioa da, bizitzaren lehenengo etapetatik hasita landu behar dena.

**HELBURUA.** Helduen osteoporosia prebenitzeko, erizainak haurraren elikaduran duen esku-hartzea aztertzea.

**METODOLOGIA.** Errebisio bibliografikoa egin da. Horretarako, Pubmed, Biblioteca Virtual de la Salud (BVS), Cochrane eta Dialnet datu-baseak erabili dira. Honez gain, informazio gehiago lortzeko, gaiarekin erlazio zuzena duten web-orriak kontsultatu dira. Honela, lanerako erabilgarriak izan diren 39 dokumentu lortu dira.

**EMAITZAK.** Hezurra proteina eta mineralez osaturiko egitura bizia da, etengabe suntsitzen eta ordezten dena. Hezur-masaren gailurra (HMG) bizitzaren hirugarren hamarkada hasieran lortzen den eskeletoaren dentsitate totala da. Beraz, nerabeak dira hezur-masaren determinatzaile aldagarrien bidez hezurren eskurapena eta kontserbazioa hobetzeko azken aukera. Horretarako, erizaina biztanleriaren eta osasun-sistemaren arteko lotura izango da, hurrei bai familiei nutrizio-heziketaren programa eskaintzeko, otorduen jarraipena egiteko eta elikagaien garrantzia ikuskatzeko.

**EZTABAIDA.** Haurtzaroa, osteoporosia saihesteko lehen urratsa da. Bereziki, kaltzioaren eta D bitaminaren kontsumoaz gain, dieta mediterranea gomendatzen da hezurren hazkuntza osasuntsurako. Eztabaida, gomendio kopuru zehatzean eta landare produktuen eraginkortasunean dago. Bestalde, erizainaren rolaren garrantzia argia bada ere, hauen egitekoak zehazteko daude.

**ONDORIOAK.** Haurrek elikadura osasuntsua eramatearen garrantzia ikusi da, eguneroko produktu orekatu baten kontsumoak, etorkizunera begira, Hezur-masaren dentsitatean (HMD) eragiten baitu. Era berean, erizainaren rola etorkizuneko gaixotasunak prebenitzeko pilare nagusia izanik, arlo hau gehiago ikertzeko, ikerketa-irizpideen estandarizazioa garrantzitsua dela ikusi da.

**Hitz gakoak:** osteoporosia, haurtzaroa, elikadura, prebentzioa, erizaintza-zainketak.



## AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	1
2. HELBURUAK .....	2
3. METODOLOGIA .....	3
3.1. Bilaketa bibliografikoaren estrategia .....	3
3.2. Barneratze- eta kanporatze-irizpideak eta erabilitako iragazkiak.....	4
3.3. Bilaketa bibliografikoaren emaitzak .....	5
3.4. Hautatutako artikuluen deskribapena .....	6
4. EMAITZAK .....	7
4.1. Hezur-masa eta haren garrantzia lehen urteetan .....	7
4.2. Elikadura osasungarrirako mantenugaiak .....	8
4.2.1. Kaltzioa .....	9
4.2.2. D bitamina .....	10
4.2.3. Potasioa .....	11
4.2.4. Fosforoa .....	11
4.2.5. Magnesioa .....	12
4.2.6. K eta C bitaminak .....	12
4.2.7. Proteinak .....	12
4.3. HMD eskuratzeko elikadura egokia .....	13
4.4. Erizainaren rola haurren elikadura ohitura egokiak sustatzean.....	15
4.4.1. Ospitale eta Lehen Mailako Arretan .....	15
4.4.2. Osasun Publikoan .....	16
5. EZTABAIDA .....	18
6. ONDORIOAK .....	20
7. BIBLIOGRAFIA .....	21
8. ERANSKINAK .....	26

## IRUDIEN AURKIBIDEA

- 1. irudia.** Artikuluak ebidentzia-mailaren arabera sailkatzen dituen Alper eta Haynes-en piramidea.
- 2. irudia.** Bizitza-zikloan zehar hezur-masaren aldaketak.
- 3. irudia.** Nutrienteak eta horien eragina hezurrean.

## TAULEN AURKIBIDEA

1. **taula.** Artikuluak bilatzeko aukeratutako deskriptore eta hitz gakoak.
2. **taula.** Bilaketa bibliografikoan erabilitako barneratze- eta kanporatze-irizpideak.

## ERANSKINEN AURKIBIDEA

1. **eranskina.** Datu baseetan lortutako emaitzak.
2. **eranskina.** Bigarren mailako bilaketa bibliografikoak.
3. **eranskina.** Errebisorako erabilitako artikuluak eta horien ezaugarri nagusiak ebidentzia mailaren arabera.
4. **eranskina.** Eguneroko dietan hartu beharreko kaltzioa eta D bitaminaren balioak.
5. **eranskina.** HMGren garapenean inplikaturako elikagaien funtzio eta balio gomendatuak.
6. **eranskina.** Kaltzioa duten elikagaiak eta balioak.
7. **eranskina.** D bitamina duten elikagaiak eta bere balioak.
8. **eranskina.** Osakidetzak haurrentzat gomendatutako asteko menuak.

## **LABURDURAK**

**BBBE:** *Bataz Besteko Beharren Eskaera*

**BVS:** *Biblioteca Virtual en Salud*

**COMA:** *The Committee on Medical Aspects of Food and Nutrition Policy*

**DeCS:** *Descriptores en Ciencias de la Salud*

**ESCEO:** *Clinic and Economic Aspects of Osteoporosis and Osteoarthritis*

**GAP:** *Gantz azido poliinsaturatuak*

**GSE:** *Gomendatutako Sarrera Egokia*

**HMD:** *Hezur-Masaren Dentsitatea*

**HMG:** *Hezur-Masaren Gailurra*

**MeSH:** *Medical Subject Heading*

**MOE:** *Munduko Osasun Erakundea*

**NOF:** *Nazioarteko Osteoporosi Fundazioa*

**PIO:** *Patient, Intervention, Outcome*

**SE:** *Sarrera Egokia*

**UI:** *Unitate Internazionale*





## 1. SARRERA

Azken mendeetan zehar, bizi-kalitatearen hobekuntzarekin batera, bizi-itxaropena nabarmen handitu da herrialde garatuetan. Horrek, adinarekin lotutako gaixotasunen intzidentzia handitzea eragin du, besteak beste, osteoporosiarena (1-3).

Osteoporosia hezur-masaren murrizketa zein hezur-ehunaren mikro-arkitekturaren narriadura ezaugarri duen eta haren hauskortasuna areagotzen duen gaixotasun sistemikotzat ezagutzen da (4).

Epidemia isila ere deitu izan zaio, pixkanaka-pixkanaka, inolako zantzurik eman gabe, hezur-masa lapurtu eta hezur-haustura eragiten baitu. Hezur-masaren dentsitatea (HMD), *T eskalan* -2,5eko balioa edo baxuagoa lortzen denean osteoporosiaren ondoriozko hausturatzat definitzen da (4). Kasu gehienetan, orno, aldaka eta erradio hezuraren gune distalean izaten dira (3-5).

Espanian, urtero, 30.000 aldaka haustura baino gehiago egoten dira eta 50 urtetik gorako hiru emakumetik batek, gutxienez, ornoen konpresio-haustura bat izaten du bizitzan zehar (2).

Gaur egun, osasun publikoko arazo garrantzitsu hau, mundu osoko 200 milioi pertsonen baino gehiagok pairatzen dute. Kopuru hori ordea, 2040rako bikoiztu egingo da bizi-kalitatearen gutxitzea, desgaitasunaren handitzea, bizitza doitzea, independentzia galtzea, finantza-zama areagotzea eta hainbat kasutan heriotzarekin amaitzea ekarriz (3-5).

Osteoporosia izateko arriskua, %60an faktore genetikoei dagokie eta %40an faktore hormonal, fisiologiko eta bizimodu erari. Hala ere, osteoporosia tratatzeko estrategiarik onena prebentzioa da, bizitzaren lehenengo etapetatik hasita landu behar dena (2).

Lehenengo etapa hauek, haurtzaroak eta nerabezaroak osatzen dute. Garai hauetan, hezur-masaren ia %90a lortzen da; hortaz, gizakiaren hazte-prozesuan eragina duten faktoreek, horien artean elikadurak, osteoporosiaren ezaugarri porotsuak eta ahulak baldintzatu ditzakete etorkizunean (6).

Aipatu berri diren urte kritiko hauetako nutrizio-beharrak, gero eta handiagoak dira eta jate ohitura desegokiek, kaltzio, fosforo eta D bitamina bezalako funtsezko elikagaien nutrizio-gabezia eta hazkunde lineala atzeratzen dituzte (6).

Garapen bidean dauden herrialdeetan esaterako, dieta desegokien prebalentzia altua da, eta horrek, ondorio sozial, sanitario eta ekonomiko ukaezinak dakartza haur horien osasunean (2).

Ebidentzien arabera, jarduera fisikorako eta nutrizio egokirako gomendioak jasotzen dituzten haurrek, hezur indartsuagoak, osasun kardiobaskular hobea, errendimendu akademiko sendoagoa eta autoestimu handiagoa izateko joera dute (2).

Beraz, haurtzaroa, garapen sozial, kognitibo eta fisiologikorako garai erabakigarria izanik, ohitura egokiak barneratu eta bizitza osoan zehar mantentzeko, erizainaren rola beharrezkoa izango da urte horietan. Are gehiago, osteoporosiaren prebentzio, asistentzia, diagnostiko eta tratamenduan lan eginez epidemia honen aurka borrokatzeko lehen pausoa eman dezaketen aitzindariak izan daitezke erizainak (4).

Lan honetan, azken urteetako ebidentziak kontuan hartuz, haurraren hezur-hazkuntza prozesuan inpaktu handia duen eta osteoporosiaren prebentzioan erabakigarria den elikadura mota eta haren eragina aztertuko da, ohitura ez-osasungarriak aldatzea sustatuz eta gaixotasunaren kontrolerako nutrizio egokia zein den azalduz. Horrekin hauskortasunagatik hausturak izateko arriskua gutxitzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko asmoz.

## **2. HELBURUAK**

**Helburu orokorra** helduen osteoporosia prebenitzeko, erizainak haurraren elikaduran duen esku-hartzea aztertzea da.

**Helburu zehatzak** berriz:

- Bizitzako lehen urteetan lortzen den hezur-masa osaketaren garrantzia azaltzea.
- Hezur osasuntsuak izateko ezinbestekoak diren mantenugaiak adieraztea.
- Haurraren elikadura egokirako beharrezkoak diren elikagaiak identifikatzea.
- Haurren elikadura ohitura egokiak sustatzeko erizainaren rola ezagutzea.

### 3. METODOLOGIA

Ezarrirako helburuak lortzeko, literatura zientifikoan aurkitutako informazioaren errebisio bibliografikoa egin da.

#### 3.1. Bilaketa bibliografikoaren estrategia

Bilaketa bibliografikoa gauzatzeko *Patient, Intervention, Outcome* (PIO) egitura ezarri da eta lanak erantzuna emango dion galdera nagusi bat ondorioztatu da:

- *Patient* (pazientea edo taldea): hazte prozesuan den haur osasuntsua.
- *Intervention* (esku-hartzea): erizainak osteoporosiaren prebentziorako erabili dezaken elikadura.
- *Outcome* (emaitza): Osteoporosiaren prebentzioa edota gaixoaren pronostikoa hobetzea.

PIO egitura erabiliz ondorengo **ikerketa galdera** burutu da:

*Zein esku-hartze egin behar ditu erizainak, haurren elikadura bitartez, helduaroan osteoporosia prebenitzeko?*

Behin egitura zehaztuta, lan honetarako egokiak diren *Thesaurus-eko Descriptores en Ciencias de la Salud* (DeCS), *Medical Subject Heading* (MeSH) terminoak eta hitz gakoak aurkitu dira (ikus 1. taula). Gainera, bilaketa egiterako orduan, gaira gehiago egokitzeko eta artikulua zehatzagoak aurkitzeko AND eta OR operadore boolearrak erabili dira, deskriptoreen konbinazio ezberdinak egiteko.

1. **taula.** Artikuluak bilatzeko aukeratutako deskriptore eta hitz-gakoak.

PIO egitura	DeCS	MeSH	Hitz gakoak
<i>Pazientea (P)</i>	<i>Niños Crecimiento</i>	<i>Child Growth</i>	<i>Bone mass Bone health Childhood</i>
<i>Esku-hartzea (I)</i>	<i>Nutrición Salud Atención de enfermería</i>	<i>Nutrition Health Nursing care</i>	<i>Nutrition Diet Nursing</i>
<i>Emaitza (O)</i>	<i>Prevención Adultos Osteoporosis</i>	<i>Prevention Adults Osteoporosis</i>	<i>Preventive strategies</i>

Bilaketa 2021ko abenduaren 18tik, 2022ko apirilaren 9ra bitartean gauzatu da ondorengo datu-baseetan: *Cuiden*, *Cochrane*, *Pubmed* eta *Dialnet*. Horrez gain, *Biblioteca Virtual en Salud (BVS)* meta-bilatzailea ere erabili da.

Informazio gehiago lortzeko hainbat web-orri arakatu dira:

- *Osakidetza* euskal osasun zerbitzu publikokoaren web-orria.
- *National institute for Health and Welfare*. Gaixotasunen prebentziorako eta kontrolerako Europako Zentroa.

### 3.2. Barneratze- eta kanporatze-irizpideak eta erabilitako iragazkiak

Bilaketa bibliografikoari mugak jarri eta baliagarriak diren artikulak aukeratzeko, izenburu nahiz laburpenak irakurtzeaz gain, **barneratze- eta kanporatze-irizpideak** ezarri dira, aukeraketa zehazteko asmoz (ikus 2. taula).

2. **taula.** Bilaketa bibliografikoan erabilitako barneratze-kanporatze irizpideak.

Barneratze-irizpideak	Kanporatze-irizpideak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haur osasuntsuetan zentratutako artikulak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Menopausiari eta zahartzaroari lotutako artikulak.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osteoporosia gaixotasunari buruzko informazioa duten artikulak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Artikulu errepikatuak.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingelesez edo gaztelaniaz idatzitako artikulak izatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2016 urtearen aurretik argitaratutako argitalpenak.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gai nagusizat haurren elikadura gailentzea.</li> </ul>	

Era berean, artikuluek baldintza hauek betetzeko asmoz zenbait **iragazki** aplikatu dira datu-base ezberdinetan. Hauen artean, aipatu beharra dago hasieran bilaketa azken bost urteetan zentratu dela, baina emaitza gutxi lortu ostean, bilaketa azken hamar urteetara zabaldu dela.

Horrez gain, hizkuntza gaztelania edo ingelesa izatea izan da aplikatu den beste iragazkia. Testua eskuragarri ez zegoen kasuetan *Google Académico* bilaketa motorra erabili da bertsio osoa lortzeko asmoarekin. Horrez gain, emaitza kopuru handia zegoen bilaketen kasuan, errebisio-sistematikoa izatearen filtroa ere aplikatu da, Alper eta Haynes-en piramidearen arabera (7) ebidentzia altueneko artikulak lortzeko asmoz.

Hainbat kasutan, besteak beste, Dialnet datu-basean, bilaketen emaitza orokorrean lortutako artikuluko kopuru baxua medio, ez dira iragazkiak aplikatu eta zuzenean hautatu dira informazio baliagarria duten artikulukoak.

Aukeraketa orokorra, bi zatitan egin da. Lehenengoan, izenburua eta laburpena irakurri dira, barneratze/baztertze irizpide eta lanaren helburuekin bat datozeela ziurtatzeko. Ondoren, artikuluen irakurketa sakona egin da, errebisioa egiteko baliagarriak direnak soilik aukeratzeko.

### **3.3. Bilaketa bibliografikoaren emaitzak**

Behin artikuluen aukeraketa eginda eta errepikatuak zeudenak alde batera utzita, 39 artikuluko hautatu dira lana burutzeko.

Bilaketa estrategian ezarritako baldintzak, barneratze- eta kanporatze-irizpide eta filtroak kontuan izanik, **lehen mailako bilaketetan** lortutako emaitzak 1. eranskinean azaltzen dira.

**Pubmed** datu-basean zazpi bilaketa burutu dira deskriptoreak eta hitz-gakoak OR eta AND eragile boolearrekin konbinatuz. Ia denetan azken 5 urteetako iragazkia aplikatu da. Era berean, hizkuntza gaztelania edo ingelesa izatea hartu da kontutan. Bilaketa batean ez da iragazkirik aplikatu emaitza kopuru baxua lortu baita. Erabilitako deskriptore nagusiak *Osteoporosis prevention*, *child* eta *nutrition* izan dira. Gaia zehatzago jorratzeko *nursing* eta *bone-mass* hitz-gakoak erabili dira. Horrela, artikuluen irakurketa kritikoa egin eta errepikatutako artikulukoak baztertuta 26 emaitza hautatu dira.

**BVS** meta-bilatzailean egindako bilaketari dagokionez, bederatzi bilaketa-kate desberdin eraiki dira, *nursing care*, *child nutrition* eta *osteoporosis prevention* deskriptoreak oinarri gisa jardun dutelarik. Hauekin konbinatu diren hitz gakoak *growth*, *health*, *masa ósea* eta *osteoporosis en adultos* izan dira. Bilaketak egiterako orduan, urtearen eta hizkuntzaren iragazkiak erabili dira, hala nola, azken bost urteak eta ingelesa eta gaztelania hizkuntza. Azkenik, irizpideen arabera hautatuak izan diren artikulukoak 5 izan dira.

**Cochrane** datu-basean lau bilaketa-kate eraiki dira, *Child nutrition* eta *Osteoporosis prevention* hitz-gakoak erabilia, alegia. Izan ere, datu-base honetan aurkitu daitekeen artikuluko kopurua murriztagoa da eta beraz, bilaketa gai nagusiaz jarduten duten artikuluetan oinarritu da. Irakurketa kritikoa egin eta errepikatutako artikulukoak baztertu ondoren, emaitza bakarra aukeratu da.

**Dialnet** datu-basean hamahiru bilaketa egin dira. Lortutako emaitzak eskasak izanik, ez dira iragazkiak behar izan aukeraketa egiteko 4 artikulu izan dira aukeratuak.

Aurrez aipatutako artikuluak kontuan hartuta, **2. mailako bilaketa bibliografikoa** burutu da non lanerako baliagarriak diren 3 artikulu eskuratu diren (ikus 2. eranskina).

### **3.4. Hautatutako artikuluen deskribapena**

Lana burutzeko erabilitako dokumentuen artean: 11 errebisio sistematiko eta meta-analisi, 8 berrikuspen bibliografiko, 4 praktika klinikorako gida, 4 errebisio bibliografiko narratibo, zeharkako 3 ikerketa, 2 ikerketa arrunt, ikerketa kualitatibo 1, ausaz kontrolatutako 2 saiakuntza, 2 saiakuntza kliniko, artikulu original 1 eta adituen iritzi 1 aurkitzen dira.

Lortutako artikuluak ebidentzia mailaren arabera sailkatu dira, Alper eta Haynes-ek proposatutako ebidentziaren piramidea erabiliz. Piramidearen gailurrean ebidentzia altueneko artikuluak aurkitzen dira eta piramidearen oinarrira zenbat eta gehiago hurbildu, artikuluen ebidentzia maila geroz eta baxuagoa da (ikus 1. irudia) (7).



**1. irudia.** Artikuluak ebidentzia-mailaren arabera sailkatzen dituen Alper eta Haynes-en piramidea (7).

Ikus errebisiorako erabilitako artikuluen ezaugarri nagusiak 3. eranskinean (dokumentu bakoitzaren egileak, argitaratutako urtea, ikerketa mota, ebidentzia zientifikoaren maila eta artikuluen gaia).

## 4. EMAITZAK

### 4.1. Hezur-masa eta haren garrantzia gizakiaren bizitzako lehen urteetan


Hezurra proteina eta mineralez osaturiko egitura bizia da, etengabe suntsitzen eta ordeztzen dena. Osteoporosia, normalean, ohiko zahartze prozesuaren ondorioz gertatzen da, suntsipen erritmoa handitu eta hezur berrien sorkuntza moteltzen denean, hezurak mehe eta hauskor bihurtuz (8,9).

Epidemia isil hau, zahartzearen atal saihestezina dela uste bada ere, sustraiak haurtzaroan ditu (3,9,10). Izan ere, ikerketa askoren arabera, bizitzaren garai goiztiarrean lortzen den hezur-masa, hezur-osasuneko determinatzaile garrantzitsuena da (2,6,8-12). Munduko osasun erakundearen (MOE) arabera, nerabezaroa 10 eta 19 urte bitarteko aldia da non lehen helburua hezur-masaren eskuraketa egokia lortzea den (3,9-12).

Eskeletoaren garapena ez da uniforme, Zemel et al. autoreek 2012an argitaratutako berrikuspen bibliografikoan adierazten dute atal bakoitza abiadura desberdinean osatzen dela (10). Esaterako, nerabezaroaren aurretik, gorputz-adarretan enborrean baino hazkunde handiagoa ematen da. Nerabezaro goiztiar eta ertainean, bizkarrezurraren hazkundea erlatiboa da eta nerabezaro berantiarrean, hazkuntza orokorrean mantsotu egiten da.

Hezur-masaren osaketa genetika eta ingurumen-faktoreen eraginpean dago, dieta barne. Horregatik, mineralen eta bitaminen kontsumoa, besteak beste, D bitaminarena eta kaltzioarena, funtsezkoa da haurtzaroa eta nerabezaroa bezalako hazkunde azkarreko garaietan (3,10-16).

Nerabezaroan, hezur-edukiera ia osoa lortu ez ezik, hezuraren dentsitatea goi-ordoki batera iristen da. Azken hau, HMG bezala ezagutzen da (ikus 2. irudia) (17).



### 3. irudia. Bizitza zikloan zehar, hezur-masaren aldaketak (17).

Eskeletoa organo aktiboa da, etengabeko birmoldaketa jasaten duena, baita hazkunde lineala amaitu ondorenean ere. HMG lortua izanik ere, hamar urtez behineko birmoldaketa ematen da, hezur-sareko balantzean aldaketarik izan gabe hezurdura erabat berreraikitzea dakarrena (16).

Era berean, gainbehera geldo baina progresiboa ematen da hezurraren sendotasunean, hausturak izateko aukera handituz. Hortaz, hezur-masaren gailur optimoa hausteko baldintza orok, haustura arriskua areagotu dezake gerora bizitzan, erortzeko intzidentziatik eta aktibitate fisikotik at (9,16,17).

HMG, bizitzaren hirugarren hamarkada hasieran lortzen den heldutasun eskeletikoaren dentsitate totaltzat deskribatzen da (18). Beraz, heldu gazteak azken aukera bezala ikus daitezke dieta eta bizimodu faktoreak hobetzeko eta gailur hori optimizatzeko (19,20). Zemel-en 2010eko eta Kralick-en 2020ko azterlanetan, osteoporosia saihestu eta hausturak izateko arriskua, helduaroan %50eraino murriztu daitekeela diote (9,12).

Horretarako, hezur-masaren determinatzaile aldagarriak, besteak beste, kaltzioa, fosforoa, D bitamina, potasioa, magnesioa, bitaminak, proteinak, dieta orekatua eta ariketa fisiko egokia beharrezkoak dira sinergikoki hezurren eskurapena eta kontserbazioa hobetzeko (9,10).

#### 4.2. Elikadura osasungarrirako mantenugaiak

Hezurren osaketa egokia eskuratzeko eguneroko elikagaietan aurki daitezkeen mantenugai egokiak ezagutzea eta kontsumitzea oinarrizkoa izango da etorkizuneko osteoporosiaren agerpena murrizteko. Mantenugai nagusiak eta hauen ezaugarriak ondoren aztertuko dira.



#### 4.2.1. Kaltzioa:

Kaltzioak gorputzaren pisuaren %19 osatzen du eta %99a eskeletoan dago (9,17).

Giza fisiologian kaltzioa funtsezko elementua da, zeregin garrantzitsuetan parte hartzen baitu, besteak beste: muskulu-kontrakzioetan, hezuraren indarrean, nerbio bulkadetan zein transmisioan, bihotz-taupaden erregulazioan eta zelulen arteko oreka jariakorrean (9,10,17,19,21).

Jaiotzean, helduaroko kaltzio osoaren %2-3 besterik ez dugu eta lehen urte bitartean dietatik barneratutakoak, bereziki esnekien bitartez, etorkizunean izango dugun hezurdura zehazten du.

Ikerketa ugari dira haurtzaroan eta nerabezaroan kaltzioan aberatsak diren elikagaiak jateak hezur osasunean duen eragina aztertu dutenak (1,2,9,10,22,23). 2012an ausaz kontrolatutako saiakuntza batek esaterako, 220 nerabe ebaluatu zituen, bi urtez kaltzio maila baxu, ertain edo altuko sarrerak izan ondoren, kaltzio gehiago kontsumitutako neska gazteetan, hezur-masaren gehikuntza aurkitu zen. Haurtzaroan eta nerabezaroan esne gutxiago edaten zuten gazteek hezur-masa baxuagoa erakusten zuten eta haustura arriskua handiagoa helduaroan (10).

Mantenugai hau beharrezkoa izanik ere, mundu osoko arazoa da bere kontsumo eza, batez ere, haur eta nerabeen artean (1).

2019ko Chen et al.-en errebisio sistematikoak frogatu du Asiako hainbat herrialdetako pertsonen batez besteko 500 mg/eguneko baino gutxiagoko kaltzio-sarrera dutela, Afrikako eta Hego Amerikako herrialdeek 400-700 mg/eguneko hartzen dutela eta Ipar Europako herrialdeek soilik dutela 1000 mg/eguneko baino kaltzio kontsumo altuagoa (1,9).

MOEk gomendatutako kaltzio sarreraren arabera, mundu osoko gomendioetan oinarrituta, 7-9 urte bitarteko haurrentzat kaltzio kopuru egokia 400 mg/eguneko da (1). Neska-mutil nerabeentzat, 800-1300 mg/eguneko eta 19-65 urte bitarteko gizon eta emakumeentzat, 800-1000 mg/eguneko (1-3,7,9). Nazioarteko Osteoporosi Fundazioak (NOF) 65 urtetik gorako gizon-emakumeei, gutxienez, 1.200 mg/eguneko kontsumoa gomendatzen die (1).

Kaltzio kopuru baxua izateak, osteoporosiaren pronostikoan negatiboki joka dezake, epe motzera nahiz luzera (1- 3,16). *The Committee on Medical Aspects of Food and Nutrition Policy* (COMA) batzordeak, egunero 700 mg kaltzio baino gehiago hartzea gomendatzen du hezur-osasuna mantendu eta osteoporosia saihesteko (19).

Haurren adinaren arabera dietan jaso beharreko kaltzioaren balioak azaltzen dira 4. eranskinean (9).

#### **4.2.2. D Bitamina:**

D bitaminak paper garrantzitsua du kaltzio kontzentrazio eta hezur homeostasian, kaltzinoa xurgatzeko eta erabiltzeko beharrezkoa den hormona baita. Bitamina hau gabe, dieta bidez lortutako kaltzioaren %10-15a soilik xurgatzen da (9).

Jimenez et al.-ek 2015an argitaratutako errebisio bibliografiko narratiboan, D bitaminaren eskasiak muskulu tonuaren eta uzkurduraren ahultasuna, erortzeko joera, hezur hausturak izateko arriskua eta osteoporosiaren agerpena errazten duela azaldu zuten (2).

Hori ez ezik, osasun arazo globaltzat hartzen da D bitaminaren eskasia adin talde guztietan (2,16,17). NOF-ek 2014ean, mundu osoko haur eta nerabeen inguruko datuak bildu zituen baita helduenak ere. Bertan, D bitaminaren gabezia, bereziki, iparraldeko klimetan bizi direnen, azal beltzarana dutenen, eta eguzkiaren argitasunerako esposizio desegokia dutenetan ematen dela ikusi zuen, baita klima eguzkitsuetan bizi direnetan ere (9).

Organismoak D bitaminaren %90 eguzkiaren bidez lortzen du eta %10 baino gutxiago dietatik aurrera. D bitaminaren azaleko sintesia eraginkorra izan dadin, B motako izpi ultra moreen kantitate nahikoak iritsi behar du epidermisera (1,23). Askotan, eguzkitako krema eman izanak eta eguzkipean igarotako denbora urriak, D bitamina nahikoa hartzea oztopatzen dute (9). 2014ean argitaratutako gida kliniko batek, neguko hilabeteetan, haur eta nerabeek etxe barruan kanpoan baino denbora gehiago igarotzen dutela dio (9). Hortaz, nahiz eta bitamina hau eskuratzeko iturri nagusia eguzkia izan, D bitaminan aberatsak diren elikagaiak, iturri garrantzitsuan bilakatzen dira. Horien artean ditugu: izokina, atuna, laranja zukua eta esnekiak (1,9,24).

Neville et al.-en arabera, Espainian, elikagai gutxi aberasten dira D bitaminarekin, edo, baldin badaude, ez dira nahikoa. Elikadura osasungarria izanik ere, zaila da eguneroko D bitaminaren balio osoa lortzea (9). NOF-en datuetan oinarrituriko ikerketa batean nerabeek hartu beharreko D bitamina kopurua 200-2000 UI/egunekoa zen (24). Beste ikerketa baten arabera, eguzkiaren irradiazioa adinekoen bizkarrean (1000 cm<sup>2</sup>) eta 3 aldiz astero, 400 UI D bitamina ahoz hartzea bezain eraginkorra izan zela ikusi zen (9).

Haurren adinaren arabera dietan jaso beharreko D bitaminaren balioak azaltzen dira 4. eranskinean (9).

#### **4.2.3. Potasioa:**

Potasioa gizakiarentzako oinarritzko minerala da. Bere funtzioa hainbat entzimen kofaktorea izateaz gain, odol presioa orekatzea da (2). 2013an Koreako biztanleriaren elikadura aztertu zen ikerketa batean, potasioan aberatsak diren elikagaiak, bizkar, gerri eta femurreko HMD egokiarekin erlazionatu ziren (2,22). Haur eta nerabeen arteko elikadura aukeren eta elikadura arazoaren arteko erlazioa aztertu zen errebisio sistematiko batean, Estatu Batu eta Frantziako haur eta nerabeek %21eko proportzioan kontsumitzen zuten potasioa, esnekiak izanik elikadura iturri nagusia, eta horietatik %13 esne kontsumotik lortua (22).

Weaver et al.-en 2016ko elikadura bidezko eguneroko mantenugai hartze kopurua adierazten duten taularen arabera (ikus 5. eranskina) haur eta nerabeek hartu beharreko potasio sarrera 3-4,7 g/egunekoa da (24).

#### **4.2.4. Fosforoak:**

Fosforoak kaltzio eran, hezur eta hortzen mantenu eta eboluzioan hartzen du parte, funtzio nagusia hazkuntza berrmatzea eta galerak ordezkatzea dituelarik. Fosforoak besteak beste: haragi, hegazti, arrain, arrautza, esneki, lekale, haragi eta fruitu lehorretan aurki dezakegu, baita jaki prozesatuetan ere (22). 2013ko berrikuspen bibliografiko amerikar baten arabera, azken 20 urteetan fosforoaren kontsumoa, jaki prozesatuak kontsumitu izana medio, %10etik %15era igo da. Amerikar Estatuan, eguneroko fosforo kontsumoa 1000-1500 mg/egunekoa da, 700 mg/eguneko gomendioaren gainetik (24). Weaver et al.-ek 2016an argitaratutako errebisio sistematikoan ordea, hazte prozesuan diren haurretan, eguneroko fosforo kontsumo gomendatua 400-1250 mg/egunekoa da (24).

#### **4.2.5. Magnesioa:**

Magnesioa ere beharrezkoa da hezurren metabolismoan. Mantenugai honen gabeziak kaltzioaren metabolismoa aldatzen du; hipokaltzemia, D bitaminan aldaketak eta muskuluen gehiegizko kitzikapena eraginez. Magnesioa elikagai gehienetan aurkitzen da, hala nola, hosto berdeko barazkietan, legamietan eta intxaurretan. Magnesioaren eguneroko kontsumo gomendatua 310-420 mg dira, hurrenez hurren (24,25).

#### **4.2.6. K eta C Bitaminak:**

**K bitamina** odoleko koagulaziorako beharrezko faktorea izateaz gain, hezurraren metabolismoan hartzen du parte. Bizpahiru ikerketetan, dieta bidez K bitamina eskasia jaso izana, HMD baxuarekin eta hezur haustura arrisku handiagoarekin lotu da (23-25). K bitamina bi iturritatik lortzen da, hesteetako bakterio sintesitik eta dietatik. Bitamina hau batez ere, barazki berdeetan dago; brokoli, aza, espinaka eta letxugan. Illich et al. (23) eta Muñoz et al. (25) egileen arabera, ohiko dietak 300-500 µg K bitamina izan ohi ditu, gomendioa 55-70 µg denean.


**C bitaminaren** kasuan, Eskorbutoa, C bitaminaren eskasiak eragindako gaixotasuna, HMD baxuarekin eta helduaroko eskeletoko ondorio kaltegarrieekin lotu da (24). Aldiz bere ahorakin egokia HMGko emaitza positiboekin erlazionatu da (23,24). Fruitu eta barazki asko dira C bitaminan aberatsak, bereziki zitrikoak (23,25). Weaver et al. egileen mantenugai gomendioen taulan oinarrituta, 15-90 mg/egunekoa da C bitaminaren sarrera gomendatua (25).

#### **4.2.7. Proteinak:**

Proteinak hartzea funtsezkoa da hezur-matrizea osatzeko eta mantentzeko (22,23). Hezur bolumenaren %50 inguru eta hezur-masaren heren bat proteinek osatzen dute. *Clinic and Economic Aspects of Osteoporosis and Osteoarthritis* (ESCEO) Europako Elkarteak gorputzeko pisuaren kilo bakoitzeko gutxienez gramo bat proteina gomendatzen du, jatordu nagusi bakoitzean, kalitate altuko gutxieneko 20-25g proteinarekin. Dieta osasuntsuetako proteinen iturri nagusiak okela, arraina, hegaztiak, arrautzak eta esnekiak dira (2,22).

Hala ere, hainbat ikerketen arabera, sarrera horiek kaltzio-oreka negatiboa eragin zezaketela uste izan da, osteoporosia eta hauskortasun-hausturak izateko arriskua areagotuz (2,24). Metaanlisi berriagoek jakinarazi dutenez, gomendatutako proteinen ahorakin altuagoa, gerriko haustura arrisku txikiagoekin eta hezur-galera tasa motelagoarekin lotua dago (6,24).

Hezurren osaketarako beharrezko diren nutriente eta elikagai garrantzitsuak laburbiltzen dira 3. Irudian (23).



**3. Irudia:** Nutrienteak eta horien eragina hezurrean (23).

#### 4.3. HMD eskuratzeko elikadura egokia

Garrantzitsua da elikadura-sistema ulertzea prebentzio eta esku-hartze estrategiak ezartzeko (22); Mantenugaiak ez dira jaten, elikagaiak bai. Azken hauek, plateretan jarriz jaten dira otorduetan zehar. Une hauetan, elikagaiak gorputzean barneratzen diren osasun baldintzatzaile bihurtzen dira (11,23).

Dror et al.-en berrikuspen bibliografikoan, aldi pediatrikoan, esne eta esnekien kontsumoa azpimarratzen da, kaltzio eduki altuak eta kostu baxukoak direlako (22). Ikerketa ugari produktu hauek egunean 3 edo 4 aldiz kontsumituz, gorputzean kaltzio kopuru egokia izatea bermatzen dutela diote (2,9,14,22). Ikus 6. eranskinean kaltzioan aberatsak diren elikagaiak eta haien balioak (9).

2013an Asiako populazioan burututako hainbat ikerketetan erakutsi zen esnekiez gain, fruitu, barazki eta soja barne hartzen dituen dieta-patroiak, hezurren hausturak izateko eta hortaz, osteoporosia agertzeko arrisku baxuagoarekin lotzen zirela (2,23,26,28).

Halaber, beste ikerketa batean, dieta belarjale edo begetarianoak, hezur-osasunari eusteko rol garrantzitsuak dituzten mantenugaietan (kaltzio, D bitamina, B<sub>12</sub> bitamina eta proteinetan) kopuru baxuak dituela frogatu da (23). Hala ere, dieta begetariano osasuntsuek, normalean, magnesio, potasio eta K bitamina kopuru handiagoak izaten dituzte beste dietekin alderatuta. Eskura dauden froga mugatuak iradokitzen dute, populazio belarjaleak kaltzioa beste iturri batzuetatik lortu behar duela; hala nola, tofu, soja-produktu edo laranja zukutik (23). 2020ko Estatu Batuetako eta Australiako dieta-orientazio datuen arabera, landareetan oinarritutako alternatibak, batez ere sojan oinarritutakoak, esnekiak kontsumitu ezin dituzten taldeei gomendatzen bazaizkie ere, ordezkatzaile horiek esnekiek eskaintzen dituzten nutriente onuragarriekin alderatuta, nahikoa izatera ez direla heltzen adierazten dute (9,11).

Oro har, haragi-proteinen kontsumoa murriztea eta arrain-kontsumoa handitzea gomendatzen da, batez ere arrain urdinena. Hala ere, ez dago frogatua animalia-jatorriko proteinen eta landare-jatorriko proteinen arteko aldea (27). 2017an burututako haragi eta arrainen kontsumo handiagoa duten dieta-ereduen berrikuspen sistematiko batek, dieta horiek HMDan edo hezurren hausturan arriskurik ez zutela iradoki zuen. Bertan, arrainaren edo haragiaren proteina hezurarentzat ez dela kaltegarria adieraziz (29).

2015ean gauzatutako Framingham-eko ikerlanak proteinetan altuak diren elikagai prozesatuak, besteak beste, proteina altuko gazta, haragi prozesatuak, pastelak, pizzak eta patata frijituak hartzen dituzten gazteek HMG baxua lortzen dutela erakusten du (27). Gainera, ikerketa guztiek mendebaldeko dieta-ereduaren arriskuez eta janari prozesatuen kontsumoan beherakada sustatzearen garrantzia adierazten dute (23).

2020an argitaratutako Muñoz et al.-en errebisio sistematikoan (10) eta Zemel et al.-en 2012ko azterlanean (23), oro har, fruituetan, barazkietan, gantz baxuko esnekietan, ale osoetan, hegaztietan, arrainetan, intxaurretan eta legamian aberatsa den dieta gomendatzen da, hezurren osasuna bermatzeko.

Azken ikerketek erakutsi dute dieta mediterranea osteoporosiaren aurka babesgarri dela D bitaminarekin konbinatuz (9,23,26). Ikusi 7. eranskinean D bitaminan aberatsak diren elikagaiak eta haien balioak (9) eta Osakidetzak 2020an argitaratutako elikadura osasuntsua jarraitzeko gomendioen gidako hainbat dieta eta aholku 8. eranskinean (30).

#### **4.4. Erizainaren rola haurraren elikadura ohitura egokiak sustatzean**

Douglas O. et al.-en arabera, haurtzaroan eta nerabezaroan kontsumitzen diren produktuak egokiak izanez gero, helduaroan osteoporosiaren arrisku-faktore ez aldagarrien eragin negatiboa murriztu dezakete (31).

Beste ikerketa batzuek diote, familiako kideek eta ikaskideek haurtzaroko eta nerabezaroko ohituretan, janariaren kontsumoan eta giza osasunean baldintza dezaketela (32-37). 2020an Osasun Institutu Nazionalak argitaratutako gida klinikoaren arabera, jateko ohiturak familiarren eta otordu erregularren ongizate sozial, fisiko eta mentalean eragiten dute (33,37).

Erizainak biztanleriaren eta osasun-sistemaren arteko loturatzat jo daitezke. Virginia Hendersonen zainketa-ereduan baloratu behar diren oinarrizko 14 eginbeharretan, bigarren premia modu egokian jatea eta edatea izanik, erizainak nutrizio-egoerarekin lotutako hainbat diagnostiko bildu eta diagnostiko bakoitzean, egoera hori hobetzeko jardueraz osatutako esku-hartzeak jartzen ditu martxan; haurraren, familiarren eta gizartearen beharretan oinarrituta (38).

Egile asko dira osasun profesionalek haur eta nerabeei elikadura kontsumo ohituren formazio goiztiarra eta hezkuntza eskaintzea beharrezkoa dela adierazten dutenak (30-34). Erizaintzako Unitateen ikuspegitik ordea, egindako ikerketek erakusten dute osasun hezkuntza falta nabaria dagoela eta ez direla behar bezala ezagutzen osteoporosia saihesteko bizi-ohitura osasungarriak. Diziplina horren defizita eta interes falta dagoela azaltzen dute Moreno Hidalgo et al. egileek (38).

Azken ikerketen arabera, zenbait ekimen berri ikus daitezke, nolabaiteko hobekuntza adierazten dutenak bai osasun-zaintzako lekuan (ospitaleak, klinikak), bai osasun-zaintzako lekutik kanpo (eskolak, komunitateak) (36-38).

##### **4.4.1. Ospitale eta lehen mailako arretan:**

Erizainak funtsezko protagonistak dira desnutrizio-arriskuan dauden pertsonen identifikazio goiztiarrean. Kostu baxuko eta efizientzia altuko bahetze-praktika sinpleez eta berariaz prestatutako profesionalen arteko elkarlanaz baliatuz, eboluzio klinikoan ondorio negatiboak minimizatzen baitituzte (38).

Bestalde, zainketen arreta programaren bitartez, elikadurarekin erlazionatutako arazoak modu antolatuan eta sistematikoan konpontzeko metodo zientifikoa aplikatzen dute: datuak bilduz eta baloratzen hasiz, erizaintzako diagnostikoen identifikazio (NOC), interbentzio (NIC) eta erizaintzako jardurekin jarraituz, eta azkenean, prozesu osoaren ebaluazioarekin amaituz (38).

**Ospitaleko erizainek** pazientearen nutrizio-egoera zuzenean, uneoro eta etengabe baloratzeko aukera dute, ingresutik altan joaten diren arte. Ildo horretan, erizaina emandako dieta, agindutakoarekin bat datorrela egiaztatzeaz eta era berean, elikadura ohitura egokiak sustatuz eta zainketen etengabeko jarraipena burutuz, pazienteei eta/edo zaintzaileei elikadura-aholkuak transmititzeaz arduratzen da (38).

2017an gauzatutako ikerketa baten arabera, lehen mailako arretan pazienteei eta/edo zaintzaileei elikadura hezkuntza eskaini izanak garrantzi handia zuela, eta haien osasunean eragin positiboak zituela egiaztatu zen (38). **Lehen arreta mailako osasun profesionalak** besteak beste: genero eta adin taldearen arabera, osasun aholkuen eta menuen jarraibideak osasun giden bidez emateaz, inguruan aurki daitezkeen elikagaiez baliatuz dieta errazak eta egokiez informatzeaz, menu plangintzari buruzko hezkuntza emateaz eta familiari arreta terapeutiko bitartez alde aurretik saihestu daitezkeen gaixotasunen prebentzioari, diagnostikoari eta tratamenduari buruz informatzeaz arduratzen dira (31-35,38).

#### **4.4.2. Osasun Publikoan:**

Osasunerako hezkuntzaren helburua herritarrengan ondorio larriak eragiten dituen bizimodua aldatzea da. Haurrek edozein alaketetara egokitzeko gaitasun handiagoa izanik, errazagoa izaten da hezkuntzako esku-hartzea eraginkorra izatea. Horregatik, garrantzitsua da erizainaren rola eskoletan, bizi-ohitura osasungarriak sustatzen baititu lehenengo urteetatik hasita (32-36). **Eskolako erizainak**, gainerako erizain profesionalak bezala, hainbat funtzio betetzen ditu lau esparrutan, guztiak ere ezinbestekoak dira lana eraginkortasunez egiteko.

Asistentzia-funtzioa: erizaina, erizaintza-prozesuaren eta erizaintzako diagnostikoen bidez, hezkuntza-komunitate osoari arreta emateaz arduratzen da, patologia kronikoak edo akutuak dituzten haurrei banakako zainketak ematen ditu, bilakaera kontrolatu eta, beharrezkoa den kasuetan, gurasoei informazioa eta heziketa ematen die (39).



Era berean, asistentzia-eginkizunen artean daude eskola garaian nagusitzen diren osasun-arazoak prebenitzea, larrialdietan jardutea, jantokia ikuskatzea eta bertan eskainitako dietak, autozainketa eta bizimodu osasungarriak eskuratzea, komunitatearen osasuna mantentzeko eta jarraipena egiteko helburuarekin (38,39).

Irakaskuntza-funtzioa: Espainiako Eskola Erizainen Elkarte Zientifikoaren arabera, osasunaren sustapenarekin, osasun-arazoen prebentzioarekin eta ikastetxeko ikasle, guraso, irakasle eta langileei zuzendutako gomendioekin lotutako hezkuntza-jarduerak egitean datza (39).

Ikerketa-funtzioa: dagokienez, eskolako erizainek azterketa zientifikoak egin behar dituzte ezagutzak sakontzeko eta erabiltzen diren metodoak ebaluatuz praktika profesionalak hobetzeko. Gainera, egoki diren beste ikerketa batzuk berrikusi behar dituzte, edo ezagutzak zabaltzen eta erizainen jarduna hobetzen laguntzen duten biltzarretara joan behar dute (39).

Kudeaketa-funtzioa: eskolako erizaina arduratzen da eskura dauden jarduerak eta baliabideak planifikatzeaz, antolatzeaz, zuzentzeaz eta kontrolatzeaz. Gainera, Lehen Mailako Arretako zentroekin eta tartean dauden beste erakunde batzuen lotura da. Informazioa erregistratu eta baliabide materialak gainbegiratzen dituzte hauek. Erizaintzako erregistroen bidez, kalitate profesionala eta erizaintzako erantzukizuna baloratzen dira (38,39).

Madriren 2012an argitaratutako kudeaketa planaren arabera, Espainian ez dago garbi erabakita eskolako erizainen funtzioa. Ez dago garbi zein kasutan esku hartu behar duten hezkuntza-zentro bateko profesionalak, komunitate-erizainak edo lehen arreta mailako profesionalak (39).

Oro har, egile askoren iritziz, erizain guztiek elikadura-taldeei buruzko nutrizio-heziketa burutu, eguneko otorduetan zer proportziotan jan behar diren adierazi, eskola-bazkarien jarraipena egin, kontuan hartutako elikagaiak ohiko dietatik bereizteak duen garrantziari buruz aholkatu, mahaian jokabide ona izateko jarraibideak azaldu eta osagai berriak sartzea sustatu behar dute (33, 37-39).

## 5. EZTABAIDA

Lan honen helburua helduen osteoporosia prebenitzeko erizainak haurraren elikaduran duen esku-hartzea aztertzea izan da. Erabilitako artikulu guztiak bat etorri dira haurtzaroa osteoporosia saihesteko lehen urratsa izatearen ideiarekin (2,6,8-12). Haurren HMDren eta kaltzio zein D bitaminaren sarreraren arteko elkarlanari buruzko ikerketa asko aurkitu dira, gehienek faktore hauen arteko elkarlan positiboa iradokitzen dutelarik (1,2,9,10,20,22-24). Lurralde ezberdinetan bizi diren haurren elikadura aztertuta, mundu osoko arazotzat jotzen dute egile ugari egunero ahoratu beharreko mantenugaien kopuru eza (1,2,9,16,17).

Kaltzioaren eta D bitaminaren garrantzia zein onura ikerketa ugari bidez (1,2,9,10,22,23) frogatu bada ere, aztertutako artikuluetan, egunean gizabanako bakoitzak ahoratu beharreko kopurua eta iturria ez dira batere zehatzak. MOEk gomendatutako kaltzio sarrera adinaren arabera zehazten da, minimoa 400 mg/egunekoa delarik (1-3,7,9). NOFek ordea, orokorrean, 1.200 mg/eguneko kontsumoa gomendatzen du (1) eta COMA batzordeak, gutxienez 700 mg/eguneko baino gehiago hartzea (19).

Hori ez ezik, D bitamina eskuratzeko iturri nagusia eguzki izpiak dira eta gomendioa 3 aldiz astero hartzea (1,23). Hala ere, Neville et al.-en ikerketak dionez, faktore ugari mugatzen dute eguzki izpiak epidermisera heltzea eta hurrek elikadura arruntaren bidez eguneroko D bitamina nahikoa eskuratzea (9).

Bestalde, proteinetan aberatsak diren elikagaiak egile batzuen iritziz gomendagarriak badira ere (6,22) beste ikerketa batzuen arabera, sarrera horiek kaltzio-oreka negatiboa eragin zezaketela uste dute, osteoporosia eta hauskortasun-hausturak izateko arriskua areagotuz (2,24). Oro har, haragi-kontsumoa murriztea eta arrain-kontsumoa handitzea gomendatzen da (27). Hala ere, ez dago ebidentzia frogaturik animalia-jatorriko proteinen eta landare-jatorriko proteinen arteko aldean (27,29).

Arlo horretan, ebidentzian oinarrituriko frogak zehatzik ez izateak, eztabaidagai bihurtzen du landare jakietan oinarritutako dietaren onura haurren hezuraren garapenean. 2020ko Estatu Batuetako eta Australiako dieta-orientazio datuen arabera, dieta belarjale edo begetarianoak, hezur-osasunari eusteko rol garrantzitsuak dituzten mantenugaietan (kaltzio, D bitamina, B<sub>12</sub> bitamina eta proteinetan) kopuru baxuak dituela frogatu zen nahiz eta landareetan oinarritutako alternatibak, batez ere sojan oinarritutakoak, esnekiak kontsumitu ezin dituzten taldeei gomendatu (9,11). Beste ikerketa batean

ordea, dieta begetariano osasuntsuek, hezuraren osaketarako garrantzitsu diren magnesio, potasio eta K bitamina kopuru handiagoak izaten dituztenez kaltzioa beste iturri batzuetatik lortuz gero eguneko mantenugai nahikoa eskuratzen dela adierazten du (23).

Orokorrean, nahiz eta populazioen arteko jate ohitura ezberdintasunek elikadura baldintza batzuk aldatu ditzaketen, egile guztiek bat egiten dute dieta mediterranea haurren hazkuntzarako dieta egokia izatearen ideiarekin Gaur egungo azterketek haurren eguneroko elikagai kontsumoaren jarraipena eta hobekuntza lortzearen garrantzia azpimarratzen dute (2,9,10,23,26-28).

Elikaduraz at, erizainaren rolean zentratuz, erizaina bizi-kalitatearen mantenuan oinarritzko pilare bilakatu dela esan beharra dago (30-34,38). Erizainaren rola zehaztea oso zaila izan da, izan ere, ez dago kontsentsu bat honen inguruan, eta artikuluek erizainak eman ditzaketen zainketa ezberdinak deskribatzen badituzte ere zainketa orokorrak dira (35-39). Gainera, iturri ezberdinak bat datoz zainketa-plan baten erabileraren garrantziarekin, hau terapia eraginkorrena dela adieraziz (32-39).

Lanean zehar sumatu den beste gabezia bat, erizainak duten hezkuntza falta izan da haurrei eman beharreko zainketen inguruan eta osteoporosia saihesteko bizi-ohitura osasungarrien inguruan. Arestian aipatu den moduan, Moreno Hidalgo et al. egileen ikerketan adierazi zuten erizainek hezkuntza falta ez ezik interes falta sumatzen zutela (38).

Osteoporosiaren lehen, bigarren eta hirugarren mailako prebentzioari buruzko ezagutza eskas hori dela eta, autore askok uste dute beharrezkoa dela osasun-arloko profesionalak elikadura gaietan trebatzea, nutrizioarekin lotutako jarduerak egin ditzaten eta heziketa funtzionaleko programa bat ezar dezaten erabiltzaileentzat (38,39).

Hala ere, aipagarria izan da ikerketa ezberdinek frogatu dutela erizainaren interbentzio ezberdinek, pazienteen bizi-kalitatea hobetzea lortzen dutela hainbat alorretan (32-36). Garbi dago ordea, interbentzio hauek protokolizatuak ez daudenez, tokiaren arabera ezberdin jokatzea eragiten dutela, ebidentziarik izan gabe. Hau honela, garrantzizkoa ikusten da alde batetik, paziente hauei zainketak eman behar dizkioten erizainen papera zehaztea, erizain hauentzat heziketa-plan bat estandarizatzea, eta azkenik protokolo eta gidak sortzea ebidentzia zientifikoan oinarritutako kalitatezko zainketak emateko helburuarekin (33,37-39).

Aipatzekoa da ere, ezberdintasunak azaldu direla zainketak ematen dituen erizain motaren alorrean. Autore batzuk, erizain orokorrak ematen dituen zainketen inguruan hitz egiten dute (32-37). Beste batzuen arabera, erizain rol hori hezkuntza zentrotako erizainak, komunitateko erizainak eta lehen arreta mailako profesionalaren artean egitea proposatzen dute, gaixotasunak duen inpaktua murrizteko helburuarekin (38,39).

Azkenik, Espainian ez dago garbi erabakita eskolako erizainen funtzioa, zein kasutan esku hartu behar duten hezkuntza-zentro bateko profesionalak, komunitate-erizainak edo lehen arreta mailako profesionalak (39). Argi dago ordea, osteoporosia izan dezakeen biztanleriaren erizaintza-unitateak eten gabeko jarraipenak eginez, osasun-hezkuntza ematea ezinbestekoa izango dela, haren ondorioak minimizatzeko, etorkizuneko bizimodua aldatzeko, ohitura osasungarriak hartzeko eta epidemia isil hau errotik mozteko (38,39).

## **6. ONDORIOAK**

Lan honetan, hurrek elikadura osasuntsua eramatearen garrantzia ikusi da, eguneroko produktu orekatu baten kontsumoak, etorkizunera begira, HMDan eragin positiboa ez ezik, HMG lortzeko ezinbesteko faktorea baita.

